



Prensa oharra

Museum Cemento Rezolak 8.460 pertsonaren bisita jaso du azken urtean

Pandemiaren aurreko bisiten joan-etorria berreskuratu duen espazioa topagune bihurtu da añorgatarrentzat, eta ikasleak bertako instalazioetara joatea berreskuratu du

Maiatzaren amaierara arte, harrobien biodibertsitatea eta Quarry Life Award Sarira aurkeztutako proiektu berritzaileak ezagutarazten dituen “Biodibertsitatea harrobietan. Quarry Life Award” erakusketa dago ikusgai

Donostian, 2023ko urtarrilaren 30ean.- Cementos Rezola-HeidelbergCement Hispaniaren esku dagoen Museum Cemento Rezolak, 8.460 pertsonaren bisita jaso du azken urtean, hau da, pandemiaren aurreko asistentzia maila gainditu du. Azpimarratzekoa da auzoko bizilagunek egiten duten Añorgako (Donostia) instalazioen erabilera nabarmena eta pandemiaren ondoren museoan berriro hezkuntza tailerrak egin dituzten eta lantegiko instalazioetara joan diren ikasleen bisita kopuru handia.

Museum Cemento Rezolak jarduera, ondarearen kontserbazioarekin lotutako proiektu eta aldi baterako erakusketa ugari proposatzen ditu 2023rako; horien artean, arkitekturako biurtekoaren edizio berria nabarmentzen da.

Gaur egun, “Biodibertsitatea harrobietan. Quarry Life Award” aldi baterako erakusketa bisita daiteke. Erakusketa maiatzaren 30era arte egongo da zabalik, eta harrobietan dagoen biodibertsitatea eta biodibertsitatea kudeatzeko bertan ezarritako planak ezagutarazten ditu.

Harrobiak eta legar-hobiak oso gune baliotsua dira hiri-garapenaren ondorioz tokiz aldatu behar izan diren hainbat flora- eta fauna-espezierentzat. Ikerketa zientifiko ugari erakutsi dute horrelako jarduerak eta aire zabaleko beste ustiategi batzuek balio handia izan dezaketela ingurumenaren babeserako, espezie berezi eta babestuentzako habitat egokiak eskaintzen dituztelako.

Cementos Rezola-HeidelbergCement Hispaniako harrobiek biodibertsitatea kudeatzeko plan espezifikoa dituzte, bertan bizi diren espezie guztien kontserbazioa bermatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa eta Tormes-EB Fundazioaren laguntza duen erakusketan Quarry Life Award Sarira aurkeztutako proiektuei buruzko atal bat dago. Sari horrek harrobien biodibertsitatea aztertze eta bultzatzeko ikuspegi berritzaileak sustatzen ditu, eta meatzaritzaren ekologiar buruzko kontzientzia sortzea du helburu.

Erakusketa informatiboa eta interaktiboa



Erakusketa bi gunetan banatuta dago: informatiboa eta interaktiboa. Informazio-gunean, harrobietako biodibertsitatea ezagutarazten da, eta Cementos Rezolak eta Heidelberg Cement Taldeko harrobiek harrobietan erauzketak egin aurreko, bitarteko eta ondorengo kudeaketa-planak azaltzen dira.

Gune interaktiboak zenbait modulu ditu, eta horietan inguruneko biodibertsitatea era pedagogiko eta hezitzaileagoan azter daiteke, eta gure zentzumenak (entzumenak, ukimena...) erabiliz Euskal Herriko biodibertsitatea osatzen duten objektuekin/elementuekin elkarreraginean aritu eta esperimintatu daiteke.

Gainera, “Nire auzoko biodibertsitatea mapeatuz” hezkuntza-jarduera jarri da abian. Bertan, inguruko biodibertsitatea ezagutzera eta maketa kolaboratibo batean islatzera gonbidatzen zaie ikastetxeei.

Erakusketak, halaber, Quarry Life Award sariari eskainitako gunek bat du. Cementos Rezola-HeidelbergCement Hispaniaren lehiaketa hori ikertzaileei, ikasleei eta gobernuz kanpoko erakundeei eta herritarrei dago zuzenduta, eta mundu osoko HeidelbergCementeko harrobietako biodibertsitatearekin erlazionatutako proiektuak saritzen ditu.

Aldi baterako erakusketa programa zabala

Apirila eta iraila bitartean bigarren erakusketa bisitatu ahal izango da: “Añorga escolar. Aldizkari bat baino gehiago”. Erakusketak Añorgako kolonia industrial zaharraren ondare materialari balioa emango dio, 40 urte baino gehiagoz Añorgan egindako diseinu, grafismo eta eduki kalitate handiko “Añorga escolar” argitalpenaren bidez. Erakusketari esker, kalitate artistiko handiko lanak diren aldizkariaren azalen bidez, horietako batzuk JAMEk (José Antonio Martínez) eginak, diseinu grafikoaren garapena ikusi ahal izango da, baita bere edukien zorrotasuna, umore ona eta narratiba bikaina ere. Erakusketa horrek, bere emozioen bitartez, Cementos Rezola lantegiaren inguruan sortutako komunitatearen ondarearekin lotuko du ikuslea.

Aldi baterako hirugarren erakusketa uztaila eta urria bitartean egongo da zabalik. Añorgan adierazpen artistikoan aritzen den komunitate sendoa dago. Museoak “AñorgARTEA” sortu du aurrean, Añorgako belaunaldi ezberdinek beren lan artistikoak aurkezteko eta ezagutarazteko erakusketa gunea aurkituko duten espazio berria. Horrela, Añorgako herritarrek beren artea aurkezteko eta ezagutarazteko aukera izango dute. Horrela, Santi Pagola ebanistak, XX. mendearen erdialdeko Añorgako eszenak eta urte horietan karismatikoak izan ziren eta Añorga Escolar aldizkarian agertzen ziren pertsonaien karikaturak dituzten txapa inkrustazioak dituzten artelanak erakutsiko ditu.

Urteko laugarren eta azken erakusketa “3Dn eraikiz” izango da, eta MUGAK (Nazioarteko Arkitektura Biurtekoa) erakusketan parte izatea aurreikusten da, 2023ko azarotik 2024ko maiatzera bitartean



Cementos Rezola
HEIDELBERGCEMENT Group

luzatuko den 3Dn eraikiz erakusketan zementua izango da ardatz, giza kulturaren bilakaeraren zerbitzurako funtsezko material gisa. Gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunaren eta ekonomia zirkularraren eredu inspiratzailea den i.tech 3D zementuarekin 3Dn inprimatutako Alemaniako lehen bizitegi-eraikina eraikitzeak ekarri zuen erronka handiaren berri emango du. Eraikin horretan oinarrituko dira erakusketaren gainerako eremuak, eta gaiak, historian zehar gizateriaren aliatu handia izan den zementuaren erabilerari buruzko teknologia, ekologia eta diseinura zabalduko dituzte. Erakusketa horrekin “Pentsatu hiria” proiektua elikatuko da.

Museum Cemento Rezola, ingurunearekiko konpromiso soziala

Museuma oso toki eta eraikin berezian dago, Cementos Rezolaren fabrikak 1948an langileen seme-alabentzat eraiki zuen eskola zaharrean. 1997an, eskola erabilerarik gabe geratu ondoren, fabrikak Peña Ganchegui estudioari agindu zion hura birmoldatzeko, museo gisa izango zuen funtzio berrira egokitzeko. Erabilera berria, baina helburu bera: inguruko jendearen artean ezagutza eta kultura zabaltzea.

Izan ere, eraikina, fabrikak bere ingurunearekin duela 170 urtetik duen konpromiso sozialaren sinbolo da. Añorgako fabrika da hiriko industriaren adierazle bizi bakarra, eta beti izan du konpromiso sendoa eta lotura zuzena haren historiarekin; izan ere, bertako labeetatik atera da Euskadiko azken mendeko obrarik adierazgarrienei bizia eman dien zementua.

Museoak lehen hezkuntzako ikasleentzako berriazko hezkuntza-programa bat du, baita bigarren hezkuntzarako eta lanbide- heziketarako jarduerak ere. Ikastetxe bakoitzaren beharrei erantzuteko asmoz, bisita komentatuak eskaintzen dira bertako espazio eta tailer egokitueta.

Hanson eta Cementos Rezolari buruz

Cementos Rezola, Euskadiko zementu eta clinker fabrikatzaile liderra, eta Hanson, hormigoi eta agregakinen ekoizlea, eraikuntzarako materialen eta soluzioen fabrikazioan munduko liderra den **Heidelberg Materials**en parte dira.

Cementos Rezola

Prentsa Kabinetea

MBN Comunicación, S.L.

Josean Aguado

Telefono-zenbakia: 94 435 63 30

Mail: j.aguado@grupombn.com